



# EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Menderakuntza bidezko perpausak -II-

- > Helburuzkoak
- > Kontzesiboak

## **NOLA ERABILI**

# **Menderakuntza bidezko perpausak -II- helburuzkoak / kontzesiboak**

Esku artean daukazu bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke: helburuzko perpausak eta perpaus kontzesiboak.

### **-Helburuzkoak 03:19**

#### ***PROPOSAMENA***

Bideo-gelara jo aurretik, perpaus kontsekutiboei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu. Gida didaktikoan bertan proposatzen den *Barreneko hitzekin hutsuneak bete* ariketa egin.

**-ATAL DRAMATIKO TXIKIAK: -t(z)era -t(z)eko -t(z)ekotan**

**-Gidoiak irakurri** letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**-Gidoien argudioaren laburpena egin.** Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, eurretan gertatutakoaren zergatiak argi agertuz.

Hori guztia egin eta gero, bideoaren lehen atala ikusi.

# EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

## 5. kapitulua

### Menderakuntza bidezko perpausak -II-

#### *helburuzkoak*

Helburuzko perpausak, izenak berak adierazten duen bezala, helburu, xede edota asmoa adierazten dute.

#### *-t(z)era*

Egitura horrek zertara? galderari erantzuten dio eta aditz-izena *nora* kasuan deklinatuz lortzen da.

OLATZ.-	Nora zoaz Mikel?
MIKEL.-	Dendara.
OLATZ.-	Zertara?
MIKEL.-	Barazkiak eroatera.
OLATZ.-	Gogoratu postetxera ere joan behar duzula.
MIKEL.-	Postetxera? Zertara?
OLATZ.-	Lorearen paketea jasotzera. Ahaztu al zaizu?
MIKEL.-	Egia! Uf! Ez dakit astirik izango dudan. Non da bera?
OLATZ.-	Lorea? Liburutegira joan da, liburuak itzultzera.
MIKEL.-	Arraioa! Gaur osteguna al da?
OLATZ.-	Bai, osteguna, lasai Mikel zuk hartutako liburuak ere eraman ditu.
MIKEL.-	Eskerrak.
OLATZ.-	Hori burua zurea! Ea, zoaz ahaztu baino lehen erosketak egitera eta Lorearen paketea jasotzera. Gogoratuko al duzu dena? Dendara barazkiak eroatera eta postetxera Lorearen paketea jasotzera. Nahi al duzu papertxo batean idaztea?
MIKEL.-	Eta zu joan zaitez pikuak biltzera, antzarrak ferratzera eta haizea hartzera. Utikan!

Dendara. Zertara? eroatera.

## **-t(z)eko**

Egitura horrek *zertarako?* Galderari erantzuten dio eta aditz-izenari *-ko* atzizkia erantsiz eratzen da.

- |                |  |
|----------------|--|
| <b>LOREA.-</b> | Kable hau irudia eta soinua eramateko erabiliko dugu.  |
| <b>OLATZ.-</b> | Irudia eta soinua eramateko?   |
| <b>LOREA.-</b> | Bai, magnetoskopiotik telebistara irudia eta soinua eramateko.   |
| <b>OLATZ.-</b> | Ulertzen dut. Bideoa ikusteko.   |
| <b>LOREA.-</b> | Hori da. Beste kable hau antenaren seinalea magnetoskopiora ekartzeko erabiliko dugu.  |
| <b>OLATZ.-</b> | Magnetoskopiora? Zergatik ez telebistara?  |
| <b>LOREA.-</b> | Telebistako programak grabatu ahal izateko.  |
| <b>OLATZ.-</b> | Ulertzen dut.  |
| <b>LOREA.-</b> | Orain kable hauek entxufatuko ditugu bai telebista, bai magnetoskopioa argindarrez hornitzeko.                               |
| <b>OLATZ.-</b> | Eta orain, zer?  |
| <b>LOREA.-</b> | Orain, seinale horiek denak ordenatu. Zatoz.   |
| <b>OLATZ.-</b> | Zer egin behar da seinaleak ordenatzeko?   |
| <b>LOREA.-</b> | Sintonizatu. Esaterako, ETB bat, bat zenbakian jarriko dugu; horretarako, bata aukeratuko dugu eta ETBren seinalea bilatuko. |
| <b>OLATZ.-</b> | Hori da.   |
| <b>LOREA.-</b> | Ongi. Orain telebistari esango diogu seinale hori zenbaki horretan <i>gordetzeko</i> .                                       |

**Kablea.            Zertarako?            Seinaleak eramateko.**

Telebistari esango diogu seinale hori *gordetzeko*.

Kontuz!

Perpaua horrek ez dio *zertarako?* galderari erantzuten,  
Zer? galderari baizik. Perpau osagarria da.

## -t(z)era # -t(z)eko

Bi egiturak oso antzekoak dira bai forma, bai esanahiaren aldetik. Baina, ezin dira bata bestearen ordeaz erabili, ez baitira guztiz baliokideak.

MIKEL.-	Nora zoaz, Lorea?
LOREA.-	Inesen dendara noa.
MIKEL.-	Inesen dendara? Zertara?
LOREA.-	Idazluma bat erostera.
MIKEL.-	Idazluma bat, zertarako? Amodiozko gutunak idazteko?
LOREA.-	Ez, opari bat egiteko.

Liburutegira noa liburu bat irakurtzera, azterketa prestatzeko.

Amaren etxera noa, paga eskatzera, euritako bat erosteko.

Mendira joaten naiz airea arnastera birrikak garbitzeko.

Barreneko hitzekin hutsuneak bete.

Mikelek deitu dit mendira goazela ..... Sukaldera joan naiz eramango dudana janaria ..... Esnea ....., txorizo muturra eta ogia ..... eta sagarrak ..... Dendara joan beharko dut txokolatea ..... Gero jantziak prestatu ditut. Zamarra potoloa atsedenaldietan gozo-gozo ..... eta eguzkitarako betaurreko ilunak begiak ..... Sakelako telefonoa ere hartu dut larrialdiren bat gertatuz gero, .....

Autobus geltokian elkar ..... geratu gara, Mikel eta biok. Anbotora ..... asmoarekin abiatuko gara Urkiolaraino. Urkiolatik Pol-pol izeneko iturriraino joango gara gure botilak urez ..... Bertan ..... asmoa daukagu.

antolatzena gosaltzeko esateko afaltzeko  
babesteko egoteko bazkaltzeko joateko betetzera  
gosaltzeko erabiltzeko ikustekotan erostera

## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:  
*Euskal Gramatica Osoa*,  
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:  
*Gramática Gaitasuna Lantzen*,  
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:  
*Euskaltzaindiaren arauak*,  
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)